

KULTURA III. AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA • GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN
ASTEKO GAIA OLATZ GARATE TXANDAKAKO INGENIARITZA IKASLEA

EL GOIBARKO ASTEKARIA • 2004ko otsailaren 5c/XII. urtea/479. zkia

Barren

ASTEKARIA



MARTXOAK 8, EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Balantzaren orekaren bila

"BADUGU EZAUGARRI BAT GUZTIOK BERDINA: BERDINGABEAK GARA" (Anonimo)

BASKO RENT

GARBIKETA · MANTENIMENDUA · AUTOEN ALOKAIRUA

MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI eta PREST!



**GARBIKETA AUTOMATIKO
PUBLIKOA**




**GARBIKETA
2,50 €**

**GARBIKETA LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 €**



**ESKUZ EGINIKO
GARBIKETA**

**GARBIKETA
BEREZIA
4,50 €**



HORREZ GAIN:

Olioaren edo filtroen aldaketa
Pneumatikoen azterketa eta aldaketa
Balazten eta eskiduraren azterketa
Mantenimendu orokorra

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar

☎ 902 103 287

ESKAINTZA BEREZIA:

PNEUMATIKOAK 4 X 3 - 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU



Firestone

GOODYEAR



Bazterrak zuritu dira

Oso ederra zegoen Karakate, bai. Pinua zuri, baserria zuri, sasia zuri, bidea zuri, antena... beno, gehiena zuri. Baina ez naiz horretaz ari, edo ez guztiz.

Igandean lagun batekin egin nuen Karakateko tontorrerainoko bidea. Gustura ibili ginen inork lehenago zapaldu gabeko elurretan saltoka, zangoak ia izterretaraino hondoratuz, etzanda elur gainera geure buruak botaz, gure siluetak elur zurian lotsagabeki zizelatu... eta barre artean honela esan zidan lagunak: “konturatu al zara sasi gainean gabiltzala korrika?!”. “Sorginen antzera” pentsatu nuen nik irribarre salati batez. Baina etxera ere iritsi ginen, eta erantzi genituen txapel, polaina eta beroki blaituak. Sukaldeko goxotasunean nengoan politiko ezagun batek irratitik belarriak igurtzi nahi zizkidala ohartu nintzenez. Barkatuko dit gizonak baina nahiago izan nuen sukaldean biraka zebilen euliaren hegaldia kontzentratuta jarraitu, eta ez nion kasu handiegirik egin. Euliari segika etxeko salaraino hurbildu nintzen gero erdi hipnotizaturik, eta han ere gorbatadun promesek atera ninduten berriro nire lozorrotik. Eulia telebista gainean gelditu zen.

Harriturik (eta zergatik ez esan, pixkat beldurtuta ere bai) begiratu nion euliari. Zein alderdi politikotakoa ote zen? Euli eskuindar bat ote nuen etxean? Barre egingo didazue, baina disimuluan euliarengana gerturatu eta ea biboterik ba al zuen begiratzera ere iritsi nintzen.

Leiho aldera ihes egin zuen baina euli txikiak. Orduan Karakate elurtua ikusi nuen berri. Eta barre txiki batek ihes egin zidan. “Elurra urtu baino lehen egin nahi diten hauek kanpaina!” pentsatu nuen, “elurrak dena estaltzen eta leuntzen baitin, baita sasia ere”. Dena den, elurra urtzean sasiaren arantzak hor jarraituko du, zuriak zuri izaten jarraituko duen modu berean.

Uxue Alberdi



Intsumisiorako deialdia

Madrilek erabakia du ezker abertzalearen aukera mapa politikotik ezabatua egon behar duela eta horretarako bideratu du ilegalizazioen ildo. Baina ez da Madrilgo gobernua PSOerek batera, onura atera nahi dion bakarra egoera honi. Gasteizko tripartitua osatzen duten alderdiak ere, egoera horretaz baliatu nahi dute, euron boto ontziak betetzeko. Aralar ere joko horretan sartu da: “Ez gaude ados baina ezin dugu ezer egin”. Bitartean milaka eta milaka herritarren eskubideak zapalduta. Ezker Abertzaleak antolatzen dituen ekitaldiak Ibarretzek eta Balzak bidalitako Ertzaintzak porrekin zapuztuak eta debekatuak, autodeterminazioa eskatzen duten paperak jartzeagatik zigortuak, komunikabideetatik desagertuak (EITB barne). Baina PNV, EA, IU eta Aralar isilik geratzen dira, beste alde batera begiratzen dute, ezer gertatu ez balitz moduan.

Martxoak 14an Espainiar Hauteskundeak dira. Jende askorentzako hauteskunde are arrotzagoak, Euskal Herriaren ukazioa gauzatzen duten erakunde hauteskundeak. Eta horrela da. Baina, aldi berean, egoera ezin aproposagoa Espainiar Estatuak zein erregionalistak burutzen ari diren astakeri hau salatzeke. Eta oso erraza da hori: boto bat urnetan sartzea martxoaren 14an. Gutxi badira Madrilen oso pozik geldituko dira, Lakuan ere. Asko badira intsumiso kolektibo erraldoi bat burutuko dugu, Aznarri muturrekoa emango diogu bere oraingo agur honetan eta Autodeterminazioari eta mugarik gabeko elkarrizketari sekulako bultzada emango diogu. Zuk aukeratu.

Pello Mendizabal

Kexak	5
motZ MotZ.....	6
gehigarria	11
kiRolak.....	21
aGenda	24

Urruzunoren begi ezkutua

“lost”



“lost in translation”, horrelaxe idatzi zuen bere egunkarian, berak bizi izandako egun gehienak jasotzen zituen egunkarian, igande hari zegokion orrialdean. “lost, galduta, halaxe somatzen ditut ingurukoak azkenaldi honetan. Filmeko protagonistak bezala. Galduta Tokyon, galduta itzulpenean, galduta bizi duten bizitzan... Zer ez nahi, baina zer nahi ez dakitelarik. Bakarrik, bertan eta hala ere oso urrun daudelarik, babes bila urrezko hotel-dorre izugarrien barruan, isolaturik, galduta, pentsamendu ilunek inguratuta... Eta taxia. Hain ederrak ziren taxitik ikusten ziren argi haiek... iluntasun beltzean loratutako argiak, milaka eta milaka, kolore guztitakoak, milaka eta milaka.. zoragarria taxiko bidai laburra, liluragarria... nola ez galdu? Galde diezaiotela bestela Sophiari, Bobi edo Charlotti.... edo akaso, agian zuri...” Egunkaria itxi eta argia itzali zuen.

Eguzkiñe Aranberri

ELGOIBARKO INTSUMISO TALDEARI

Aspaldian ezkutuan zaudete, ez zarete sasoi batean bezala bistaratzen. Atzean laga zenituzten soldaduskaren eta militarismoaren kontrako ekintza ikusgarriak. Pozak eta negarrak, ilusioak eta etsipenak. Baina hor zaudete, helburuak lortzeak (neurri handia batean behintzat) eman dizuen atsedenean. Ez zarete desagertu. Eta Elgoibarko Izarrak ere ondo daki herriko intsumisiook oraindik ere gure artean zaudetela. Atento, laguntza zeinek behar duen begira. Zuen borondateari eta laguntzeko gogoari ihesbidea topatzeko zain. Eta, urtean behin, besteei laguntzeko gogo horrek masa itxura hartzen du; zuen eskuekin talo bihurtzen duzuen masa itxura, hain zuzen ere. Eta, aurren, guri tokatu zaigu zuen borondatearen irabaziak jasotzea, Elgoibarko Izarrari. Gustura jardun genuen gabon zahar feria egunean, intsumisoak eta euskaltzaleak, euskaltzaleak eta intsumisoak, nahastuta, zein zer zen asmatu ezinik. Bat eginda. Mila esker eta akordatu zorretan gaudela zuekin.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea

DEBEMENEN OHARRA

2004ko ekainaren 5ean, larunbata, Trinitateetako III. Azoka berezia ospatuko da Elgoibarren. Bertan barazki eta ganadurekin parte hartzea nahi duten baserritar guztiei gonbidapena luzatzen zaie Elgoibarko Udala eta Debemen elkartetik. Deitzen duten ganaduzaleei ganadua ikustera joango zaizkie antolatzaileak ganadua aukeratzera azoka baino lehenago. Izena emateko deitu Debemen elkarteko bulegora: 943 74 40 67 telefonora datorren martxoaren 19a baino lehenago.

Debemen (Deba Beheko Mendi Nekazaritza Elkartea)

ASTEKARIA Barren

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
baren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

◆ Emakume batek esan digunez, **Santa Klara auzoan, funeraria atzean dagoen parkea oso egoera txarrean dago.** “Santa Klarako 20 eta 22 zenbakien aurrean dagoen parkea oso egoera kaxkarrean dago. Aspaldi esan zuten konponduko zutela, baina denbora aurrera doa, eta hemen ez da inor agertu. Tokatzen zaionak, mesedez egin dezala zerbait”.



◆ Herritar batek esan digunez, **Melitongo zubitik aurrera dauden farolak beti itzalita egoten dira:** “Askotan joaten gara Netto aldera pasiatzera, eta hango farolak beti itzalita egoten dira. Negua da, eta oso goiz iluntzen du. Paraje horretan argiak piztea beharrezkoa da, bai autoentzat, eta baita oinezkoentzat ere”.

TXALOAK

◆ Guraso talde batek **inauterietako ekitaldiei buruzko proposamena luzatu nahi dio Udalari, izan ere, astearte arratsaldeko ekitaldiak ez baitziren haurrentzako oso egokiak izan:** “Udalak pailazo emanaldia antolatu zuen, baina umeak ordubete lurrean eserita hoztu eta aspertu egin ziren. Honelako ekitaldietarako hobe da Herriko Antzokia, edo bestela, musika eta haurrak parte hartzeko beste ekitaldiren bat antolatu beharko lukete. Protagonistak umeak izan behar dira. Bestalde, Txaranga oso berandu ateratzen da, ordu horretarako haur asko etxean egoten dira. Datorren urterako kontuan izango duzuelakoan, eskerrik asko aldeztu aurretik”.

◆ Guraso taldearen izenean **Ikastolako irakasleak eta ikasleak zoriondu nahi ditugu, martitzeneko ikuskizuna polita izan zelako.** Eskertu, euskal inauteriak berreskuratzeko egiten ari diren ahaleginarengatik. Zorionak eta segi horrelaxe.



Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 2004#253

Euskal Makina Erremintaren sektoreak formaziorako zentro bat ireki du Txinan

21.850.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak

Txinako merkatua pieza garrantzitsua bilakatu da azkenaldian mendebaldeko industriarentzako. Euskal Herriko hainbat enpresek txinatar merkatu handian zabaldu beharra ikusi dute, eta Tianjin hirian formazio bereziturako zentro bat ireki dute.

Duela zenbait aste inauguratu zen Instituto Hispano-Chino de Tianjin izeneko formazio zentroa. Proiektu honen helburu nagusia, Espainiako eta batez ere, Euskal Herriko Erreminta Makinaren maila altua Txinako merkatuan ezagutaraztea da. Honekin batera, Asiako merkatuan bezero berriak lortu ahal izango dira.



Tianjinen dago formazio bereziturako zentroa.

21.850.000 euroko aurrekontua

Proiektu honetan Euskal Herriko ondorengo enpresek hartu dute parte: Danobat Taldea, Fagor, Ona Electroerosion,

Kondia, Alecoop, Timek, Proschools eta IMH. Enpresa hauek aurrekontu osoaren %16a jarri dute, hau da, 3.550.000 euro. Espainiako Gobernuak 9.760.000 euro jarri ditu, Tianjin Industrial Institute erakundeak 6.520.000 euro, eta Txinako Gobernuak eta Tianjineko Udalak 2.020.000 euro. Guztira, 21.850.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak.

Tianjineko zentroak ingeniari eta espezialistentzako formazio berezitua, diseinu ikastaroak, mekanizazio eta CNC mantenua, profesionalen birziklatzea, espainiar makinekin frogak eta enpresen aholkularitza planetarako teknika berriak eskainiko ditu, besteak beste.

70 lagun izan ziren Lourdesen

Otsailaren 11n, Lourdeseko Ama Birjinaren Egunean, jende ugari joan zen bertara. Azkoitiko bidai agentzia baten bidez, 70 lagun joan ziren Elgoibartik. Meza entzun, ur bedeinkatua hartu, bazkaldu, eta iluntzerako bueltatu ziren Elgoibarrera. Esan digutenez urtetik urtera gero eta jende gehiago biltzen dira, eta oso ondo pasatzen dute.




Ikasle txartela ekimena jarri du martxan Gurean Bai Merkataritzak

Elgoibako Izarra, Udala, Udal Euskaltegia eta AEK euskaltegiak elkarlanean bideratu dute Ikasle Txartela egitasmoa. Ikasturtea amaitu arte izango da martxan egitasmoa ekainera arte. Helburua, Elgoibarren euskara ikasten ari diren ikasleak Elgoibarko dendetan euskaraz egitera animatzea da, azken batean, euskara ikastetik euskara erabiltzerako jautzia ematen laguntzea. Euskaltegiatako 5. urratsetik aurrerako taldeetako ikasleei zuzenduriko egitasmoa da, eta guztira, 20 bat euskara ikasle animatu dira erosketak euskaraz egitera.

70 denda

Herriko 70 dendetako langileek, ikasle hauek erosketak egitera joaten direnean,



beraiekin euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute, eta ikasle hauek 70 denda horietan euskaraz hitz eginez eta ikasle txartelaz baliatuz, puntuak lortuko dituzte. Euskaraz elkarriketa luzeena eta konplexuena gauzatu daitekeen dendetan 6 puntu jasoko dituzte, gutxiago hitz egin ohi denetan 4 puntu eta oso gutxi hitz egiten denetan puntu bakararra. Puntu hauekin, ikasleek euskararen mintzamena, idazmena, ulermena zein entzumena lantzeko produktuak

Einbiouk Herri Plataformak legez kanpo gelditu diren herri sektoreen ahotsa eraman nahi du Udalera

Joan zen asteartean, hilaren 2an, Elgoibarko Udalean lehentasunez borrokatuko dituzten helburuen aurkezpena egin zuten Plaza Txikiko arkupeetan.

Elgoibarko herriaren azterketa egin ondoren, hiru helburu nagusi definitu ditu Einbiouk: Lehenengoz, Elgoibarko biztanleen %60a euskalduna delako eta euskararen normalkuntzaren bidean aurrera egiteko, Osasun Zentroan euskararen normalkuntza plana lehentasunez burutzea. Bigarrenik, gaurko gizartean babes soziala behar duten sektoreak handitzen ari direnez, Udalaren politika alor honetan zabaldu eta indartu behar da. Eta



hirugarren helburu bezala, Elgoibarko hirigintza asmoetan lehentasunez Plaza Txikiaren ingurua aisialdi gune bihurtu eta berreraikuntza plana egitea.

EAJk hilaren 14ko hauteskundeetarako aurkezpena egin zuen



Joan zen ostiralean, hilaren 27an EAJ alderdiak datozen martxoaren 14ko hauteskundeetarako aurkezpena egin zuen Kultur Etxean. Juan M^o Juaristi Gipuzkoa Burubatzarrek lehendakaria, Jose Ramon Beloki Kongresurako Gipuzkoako zerrenda burua, Xabier Albistur Senatutako Gipuzkoako zerrenda burua eta Victor Bravo Senatutako Gipuzkoako hautagaia izan ziren aurkezpenean.

Lasagabaster eta Galdos EAren aurkezpenean

EA alderdiak martxoaren 14ko hauteskundeetarako aurkezpena egin zuen joan zen astelehenean, martxoaren leian. Iñaki Galdos EAKo presidentea eta Begoña Lasagabaster Kongresurako Gipuzkoako zerrenda burua izan ziren bertan.



Elkarriketarako mahai alderdianitzaren aldeko sinadurak bildu zituen Elkarrik

Elkarrik elkarriketarako mahai alderdianitz baten aldeko sinadurak biltzeko saiakera berezia egiten dihardu, eta joan zen otsailaren 28an, larunbatean, 1.000 mahaitik gora jarri zituzten herri desberdinetan. Elgoibarren hiru mahai jarri zituzten, Plaza Handian, King-Kong azpian eta Netton. Dagoeneko 50.000 sinadura lortu dituzte, eta helburua, martxoan zehar 100.000 sinadura lortzea da, bake konferentzia berri bat aurkeztu eta alderdi politiko guztien arteko elkarriketa foro bat sortu ahal izateko.

Enpresa ideien lehiaketa antolatu du Debegesak

2003. urtean Debarrenako eskualdean enpresa berrien bat sortu dutenei zuzenduta, enpresa ideien lehiaketa antolatu du Debegesak.

Irabazleak hautatzeko orduan, inbertsioa, originaltasuna, berrikuntza, sortutako enplegua, gutxituei zuzendutako lanaren sorrera eta erantzukizun soziala hartuko dira kontuan. Lehenengo saria 6.000 eurokoa izango da, eta 3.000 euroko bi aipamen berezi banatuko dira.

Interesatuek Debegesak Eibarko Azitaingo Poligonoan dituen bulegoetan jaso ditzakete lehiaketaren oinarriak eta parte hartzeko eskari orriak. Izena emateko epea martxoaren 23an bukatuko da.

Bestalde, Debegesaren ekintzaile berriei zuzendutako aholkularitza zerbitzuak enpresen sormenari buruzko 148 eskaera jaso zituen joan zen urtean, eta 45 lanpostu berri sortu zituen. Zerbitzu hau proiektu berri bat aurrera eraman nahi duen pertsona ororen eskura dago. 2003an jasotako laguntza eskaerak, %65ean egin zuten gora 2002. urtekoekin konparatuz, eta sortutako enpresen kopuruak %75ean egin du gora.

Zerbitzu honen emaitzak ikusita, Debegesak aurrean ere aholkularitza zerbitzu integrala eskainiko die enpresa proiektu berri bat sortzeko ideia duten guztiei, heziketa pertsonalizatua eskainiz, bertan azalduz edo on-line bidez. Negozio planaren garapenean laguntzea, informazioa eta laguntzen gestioa erraztea eta instituzioekin harremanetan jartzen lagunduko die. Debegesak bultzatutako proiektu honen azken helburua Debarrenako enpresen egituraren elkarlehia eta lan iraunkorra sustatzea da.

Aurreko asteburuko elurteak makina bat buruhauste eta arazo sortu zituen ZURE USTEZ, EUSKAL HERRIA PRESTATUTA AL DAGO ELURTEEI AURRE EGITEKO?



XABIER MUJIKA

15 urte, ikaslea

Golpian etorri da elurtia, eta preparau gabe harrapau gaitxu. Asko meiorau bihar da ondiokan, holako elurte haundixari aurre eitzeke. Nik ez dot arazorik euki.

JUAN MARI GONZALEZ

45 urte, saltzailea

Gasteizen bizi naiz, eta ez dut inongo arazorik izan. Egunero jaisten dut Arlaban edo Gatzagako portua, eta garbi aurkitu dut. Arazoak beste lekuren baten izango ziren.



FRANCISCO COTRINA

60 urte, pintorea

Ez, puntu askotan arazo handiak sortu dira, kamioekin batez ere. Nik ez dut arazorik izan, baina lagun asko ezin izan dira lanera joan, bide asko itxita zeudelako.

AINHOA URBIETA

32 urte, dendaria

Ez, nere gizonan familixakuak basarrixan inkomunikauta egon dia, medikuana jun ezinda. Errepidiak garbitxu ditzue, baina danok eskubide berdinak euki bihar ditzugu.



MAIDER LIZUNDIA

26 urte, etxeoandrea

Ez, errepidiak oso gaizki egon dia, eta batez ere, pribauak. Lotsagarrixa da autopistia, zauan moduan egonda, pagau ein biharra. Elurtiari aurre eitzeke lan gehixo eta hobeto ein bihar da.

MARIA JESUS AROSTEGI

56 urte, etxeoandrea

Ez, mugan egon dan ataskua lotsagarrixa izan da. Beste estatu batzutan elur gehixo eitxen dau, ta ez da arazorik egoten. Hemen makinak baditxue, baina lanerako gogo gutxi.



IRAOLA
Arotz lanak

Lurrak
Ateak
Lehioak
Armairu empotratuak

Azibar Iraolagoitia

Arno bide, 7 - Telf.: 636 49 74 85
20850 MENDARO

ALBERDI
ERREKADISTA ☎ 609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK

- Ⓞ Paketeak
- Ⓞ Gestoria
- Ⓞ Sobreak
- Ⓞ Komertzioa

GESTIOAK

- Ⓞ Ogasuna
- Ⓞ Trafikoa
- Ⓞ Merkataritzako erregistroa
- Ⓞ Diputazioa
- Ⓞ Merkataritzako - ganbera

Olatz Garate Txandakako Ingeniaritzako ikaslea

"Emakumea gizonarengandik urrun dago oraindik ingeniartzan"

24 urteko neska gazte hau Txandakako Ingeniaritzako ikasten ari da IMHn. 3. mailan dago, eta askori arraroa irudituko zaion arren, bera da gelako neska bakarra. Mutilek klasean oso ondo hartzen dutela aitortu digu, baina oraindik ere, lan munduan, gizonetzkoak dira nagusi. Datorren martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela-eta, gure artera ekarri dugu, mutilen mundua kontsideratzen den horretan emakumeak zer moduz moldatzen diren ezagutzeko asmoz.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza ikastea? Aita mundu honetan aritzen da lanean, eta neri ere betidanik gustatu izan zait. Letrak ere gustatzen zitzaizkidan, baina letra arloko ikasketek ez ninduten betetzen.

Argi zeneukan Txandakako Ingeniaritza egin nahi zenuela? Ez, hasieran Arrasateko Unibertsitatera joan nintzen, baina berehala konturatu nintzen ikasketak haiek ez zirela nire beharretara egokitzen. Niri askoz gehiago gustatu zait IMHko Txandakako Ingeniaritza. Klasean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eskaintzen du hasieratik, eta askotan liburu artean baino gehiago ikasten da lanean. Gainera klaseko bakoitzak esperientzia desberdina jasotzen du praktikan, eta hori guztiarentzat oso aberasgarria da.

"Gelako neska bakarra naiz, baina mutilek oso ondo hartzen naute"

Ez al duzu sekula pentsatu mutilentzako ikasketak direla? Ez, beti hori esan diguten arren. Gizonek beste ezaugarri batzuk dituzte, indar gehiago dute batez ere, baina ingeniaria izateko ez da indarrik behar. Desberdintasun hori gizarteak egiten du.

Zergatik iruditzen zaizu, hain neska gutxi zaudetela?

Ikasketak aukeratzekoan zalantza ugari izaten ditugu, eta kasu horietan, familiatik

eta ikastetxetik nesken ikasketak diren horietara bultzatzen gaituzte. Hala ere, gero eta neska gehiago gaude, eta hori oso positiboa da.

Sexu desberdintasuna igartzen al da ingeniartzan? Klasean ez, eta enpresetan ere, neri ez zait tokatu, baina ezagutzen dut esperientzia hori bizi izan duen jendea. Enpresetan mutilei aukera gehiago eskaintzen zaizkie. Oraindik emakumea gizonarengandik urrun dago ingeniartzan. Egoera aldatzeko ematen ari dira pausoak, baina poliki.

Atzerrian ere egin dituzu praktikak, nolako esperientzia izan da? Oso positiboa. Bi hilabete pasatu ditut Ingalaterrako herri batean lanean, eta gauza asko ikasi ditut. Kulturalki oso aberasgarria izan da. Berriro bueltatuko nintzateke.

Emakumearen egoera, berdina al da han eta hemen? Ni egon naizen lantegian idazkaria eta beste pare bat kenduta, gainontzeko guztiak gizonetzkoak ziren. Gainera, frantses gazte batekin topo egin nuen, eta izugarri harritu zen ingeniartzan ikasten ari nintzela esan nionean. Ni egon naizen inguruan, neska gutxi zeuden ingeniartzan ikasten.

Nola animatuko zenituzke neskak Txandakako Ingeniaritza ikastera?

Hasieratik lan munduarekin harremanetan jartzen zaituzte, eta hori oso garrantzitsua da. Liburu artean ikasitakoak zerbaiterako balio duela konturatzen zara. Arrasaten pasatu nuen lehenengo



"Emakume langilearen eguna, egunero izaten da."

urtean, gauzak teorikoki ikasten nituen, eta ez nekien zertarako ziren. IMHtik gainera atzerriara joaten gara praktikak egitera, eta ikaslearentzat oso positiboa da.

Martxoaren 8a, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna da. Zer esaten dizu egun horrek? Egundik osatu beharrek, gauzak asko aldatu behar direla adierazten du. Emakumeak indarra egin behar du, eta aukerak bilatu. Askotan akomodatu egiten gara. Hala ere, etxean dauden emakumeek ere lan handia egiten dute, eta beraien lana ez da baloratzen. Emakume Langilearen Eguna, egunero izaten da.

Lortuko al da noizbait emakume eta gizonetzkoen arteko balantza orekatzea? Orekatuko da, baina poliki. Pentsamoldeak asko aldatu behar dira. Ez dut pesimista izan nahi, baina errealistak izan behar dugu, eta kontuan izan behar da, emakumearen garapenaren kontra faktore asko daudela, erlijioa, esate baterako.

OTSAILA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

HILDAKOAK

Josefa Nova De La Mata,
95 urte, otsailak 5

Nicolasa Tapia Hernandez,
88 urte, otsailak 5

Ignacia Cendoya,
89 urte, otsailak 5

Rosalía Sanchez,
75 urte, otsailak 5

Felicitación Valero,
83 urte, otsailak 7

Luis Aramberri,
65 urte, otsailak 11

Nicolás Arruti,
90 urte, otsailak 18


Maria Teresa Arocena,
79 urte, otsailak 25

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK · TRASLADOAK · KOROAK



**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

Gazti BARRREN



G A Z T I E G E H I G A R R I A · 2004ko martxoaren 5a. XII urtea/479. zkia



Istilu.com

Euskal zapia buruan, eta ibili munduan

"BILBOP"

FOUR FRIENDS

Deustuko Mr. Jam musika garai-
kidearen eskolatik sortutako
taldea dugu Four Friends. Ban-
da bizkaitarrak jazz, bluesa eta rocka ka-
litate eta gustu handiz uztartzen ditu. Be-
deratzi kanta instrumentalez osatutako
Cd-a dugu "Bilbop", Soraluzeko Gazte-
lupeko Hotsak zigiluak kaleratutako la-
na.. Lau partaide dira taldean: Iñaki Irae-
ta (Gitarra), Jorge Gómez (Bateria), Fer-
nando Iraeta (Baxua) eta Eneka Albizu
(Gitarra). Jazz diskoetan gerta ohi den
moduan zuzenean grabatu dute "Bilbop",
Tío Pete estudioetan, hain zuzen ere. Uz-
ta propioko abestiez zein bertsoiez osatu-
tako lan honetan Ronnie Earl nahiz Lut-
her Hughes-en moldaketak aurki ditzake-
gu. Baita "Haurtxo Polita" kanta herri-
koiaren bertso bat ere. Abesti propioen
arte "Asteleheneko" eta "Astroblues"
izenekoak nabarmenduko nituzke. Bos-
sanova ikutu handia duen kortea dugu
"Asteleheneko". "Astroblues", berriz,
disko guztitik rockera eta popera gehien
gerturatu den kanta da, paisaiatz aldatu
eta bestelako atmosferan murgiltzen gai-
tuen kortea. Azpimarratzekoa da diskoar-
en soinu garbia, taldeak jorratzen duen
musikarentzat aproposa eta autentikoa.
Melodia eta doinu delikatuak gardenta-
sun handiz lantzen ditu Four Friends-ek.
Ezti zaporea uzten duen lana dugu "Bil-
bop", jazz melodikoaren munduan mur-
giltzeko aukera bikaina.

Ion Gurrutxaga



E
N
T
Z
U
N

MAIALEN OLAZABAL , ikaslea

"Parlamentuan ez nakixan n pizteko ze botoiri eman"

MAIALEN OLAZABAL INSTITUTOKO IKASLEA DA ETA UNICEF-EN PROIEKTU BATEN PARTE HARTU DU, BERE GELAKIDEEKIN BATERA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO LEGEA SORTUZ. BESTALDE, MAIALEN MADRILEN EGON DA BESTE KOMUNITATE BATZUETAKO GAZTEEKIN BATERA UNICEF-ÉKO ARDURADUNA EZAGUTZEN. IKUS DEZAGUN ZEIN PROIEKTUTAN PARTE HARTU DUTEN INSTITUTOKO IKASLE HAUEK.

Nola iritsi zarete Gasteizko parlamentura emakumeen eskubideak defendatzen?

Etikako irakasliak Unicef-ek antolatu bihar zuen proiektu baten berri euki zaban, proiektu honek emakumeen eskubidien alde itxen zaban eta 1.ebaluaketa osuan gai hau lantzen egon ginan. Abendu hasieran Institutoko 7 ikasle Gasteizko parlamentura jun ginan eta hitzaldi modukuak in genitxun gai desberdinak landuz . Gero, artikulua bat idatzi genun danen artian emakumeen eskubidiei buruzkoa eta legia aprobau genun. Gipuzkoatik 4 ikastetxe joan ginan eta Bizkaia eta Arabatik beste hainbeste. Parlamentuan gu ginan euskaraz hitz egiten gendun bakarrak. Nik ez naki-

xan mikrofonua pizteko ze botoiri eman...

Baina Madrilen ere egon zara Unicef-ekin, ezta?

Bai, errekreio baten nautan lagunekin eta Mariaje irakaslea etorri zan. "Madrilera joango zinate, Maialen?" galdetu zian. Unicef-etik deitu ziotela, bertako arduraduna zetorrela Estatu Batuetatik eta gai honen inguruan lanian aritu ginanekin hitz egitia nahi zabala. Valentzia, Aragoi, Badajoz eta Madrilgo jendiakin egon ginan.

Beti presaka ibili ginan! harea honea! Estazio batetik bestera, metruan kriston berua... Madril oso estresantia da! Aireportutik atera eta dana taxiz beteta! Nueva York ematen zuen...





Zer pisu daukagu gazteek esku-bideak aldarrikatzeko orduan?

Parlamentuan hainbeste kasu ez digute itxen, baina Unicef-en aldetik bai. Hauek esaten dute askotan helduek baino aportazio handiagoa egiten dugula.

Unicef-ekin joango al zinateke beste lurraldeetara?

Horretarako kontzientziatu egin behar zera. Gurekin zauzan gazte bat Unicef-ekin Nueva Yorkera joan zen eta hango kongresuan egon zen. Madrilen hain ondo pasau det, berriz ingo nabala, hasieran nahiko kargau ziguten, baina gero gabian nere adineko jendiakin hitz egiten hasi ginan oso diferentia izan zan, lagundu bai baina ondo pasau gendun baita.

Zein da berez Unicef-en lana?

Batez ere umien egoeria aztertzen du. Beraiek dira etorkizuna eta hezkuntzaz arduratzen da batez ere; orain ez bajakue erakusten, gero ez jakue erakutsiko. Askotan ume hoiek ez dakite zeintzuk dian beraien eskubidiak eta orduan beraien ezin ditzuxte aldarrikau. Pobrezia hortan jarraitzen dute ez dakitelako beste mundu baten zer dauan. Talde baten urtebeteko janarixa lortu dezakezu, baina urte asko daude eta txikitatik erakutsi behar jakue janaria lortzen. Askotan hemendik janari pilua eramaten da, baina janaririk ez dakatenian ez dakite janari hori sortzen. Horregatik, hazixak, makineria, tresneria eta holakuak bidaltzia hobe da.

"Unicef-ekoek diotenez askotan helduek baino aportazio handiagoa"

Nola lortzen da herri pobre baten egonkortasuna bertako kultura suntsitu gabe?

Beraien ohiturak kentzen ditxugu guriak onaguak direla uste degulako. Guri gure kultura eta gure hizkuntza kentzen badigute, berdin izango zaigu eskubide danna izatia, guria dana kendu badigute. Guk ospitala eta ikastetxiak itxen laguntzen degu, baina gero ikastetxe hortan erdera erakutsiko diete. Indegenen kasuan tribu bakoitzak hizkuntza desberdina dauka eta ikastetxera joan arren mundura ezingo da zabaldu erdera erakutsiz gero. Horregatik ikastetxiak ere prestatuta egon bihar dia bertan bizi dan jendian hizkuntza eta ideologiakin.

" Unicef umeetaz arduratzen da; beraiek dira etorkizuna, orain erakusten ez bajakue, gero ez jakue erakutsiko"

"ERAZTUNEN JAUNA "

J. R. R. TOLKIEN

Urte luzetan Agustin Otsoa Eribekoaren kaxoi batean ezkutaturik egon zen "Eraztunen jauna" liburuaren euskarazko bertsioa, duela bi urte Txalaparta argitaletxe nafarrak argitaratzea erabaki zuen arte. Horri esker, gaur egun, euskaldunok geure hizkuntzan barnera gaitezke J. R. R. Tolkien idazlearen liburuan. Txalaparta argitaletxeak hiru liburukitan plazaratu du idazlan osoa, edizio dotore batean. Lehenengoa, "Eraztunaren elkartea" da, bigarrena, "Bi dorreak" eta hirugarrena, "Erregearen itzulera" izenburukoa. Hain zuzen, Peter Jackson zuzendariak "Eraztunen jauna" filma osoa hiru zatitan banatu zuen bezala, hala aurkeztu dute plazara editoreek. Idazle ingelesak mundu magiko oso bat eraiki zuen "Eraztunen jauna" liburuan. Hobbitak, elfoak, nanoak, orkoak eta gainerako izaki guztiak asmatu zituen irudimenezko lurralde batean. Boterearen eraztuna Frodoren eskuetan utzi dute eta honek suntsitu egin beharko du gaizkiaren indarren mende gelditu ez dadin. John Ronald Reuen Tolkien-en liburua fantasia epikoaren gailurra da eta mundu osoan adin guztietako irakurleak liluratu ditu.

Jon Eugi



Etxeko ganbaran kamisetak eta tangak egiten hasi ziren, baina urte t´erdi igaro da Naia Merinok Istilu marka sortu zuenetik. Negozioa berea izan arren hamaika laguntzaile ditu Naiak „jende askok osatzen degu Istilu, kuadrilako jendiak, Aritz Loiolak, azokan Maria Aranberrik laguntzen dit, Eibarko Carballo, anaixak, lehengusuak "Soinekoak, gonak, sujetadoreak, kamisetak,galtzerdiak, poltsak, lepokoak" pertsona bat goitik behera jantzi daiteke Istilu markako erroparekin eta mundu guztiarentzat da gainera "Guri gustatzen zaigun arropa ateratzia nahi genun, euskal kulturari ingurukua; Euskal Herriko neska berriz ere "euskal zapiak" jantzita ikustia nahi ditugu" esan digu Naiak hamaika koloretako euskal zapiak erakutsiz. Arropa zein erraz saltzen den harrizten da 22 urteko debarra "azokan jendia harritu egiten da, postu izugarria daukagu, dotore-dotorea, eguzki-lorez beteta, 2 kilometrotara ere ikusten da gure postua. Estilo propioa daukagu dudarik gabe". Olereta,Elorrio, Irun eta Zarautzeko azokan egoten dira beraien arropa koloretsuak saltzen. Hala ere, Internet-en ere www.istilu.com webgunean eros daitezke euren jantziak.



Naiak azaldu digunez, oso argi zuten zein produktu eskaini eta ahalik eta publizitate gehien egin dute Istilu Euskal Herriko marka bat dela adierazteko, "jendeak gu ezagutzeko zen hasierako helburua, eta orain jendeak ezagutzen gaitu. Lehendik marka jende askok ezagutzen bazuen orain askoz ere gehiago eta horrek egiten du jendea marka batera ohitzea. Erosten ez badu ere, Istilu entzuten ari da jendea eta Euskal Herriko marka dela konturatzen ari da".

serigrafia


Aipatu behar da, marrazkiak eta estanpatuak beraiek egiten dituztela eta hainbat jantzitan esaldi xeble batzuk irakur daitezkeela ere "earra natxiok" "eman muxutsue". Udarako aterako dituzten produktuei buruz galdetu diogu baita, "hori ez da esaten! Sorpresa da! Guk beti dauzkagu gauza berriak. Hemendik udara jendia harrituta lagako deu eta udatik negura berdin".



"Hemendik udara jendia harrituta lagako deu eta udatik negura berdin"



Musika atalean ere sartua dago jada Istilu, "Euskal Herriko talde hasiberri askoren maketak dauzkagu. Oin arte ez zakaten beste aukerarik musika banatzeko. Gu banatzaile lanetan aritzen gara berez, marka desberdinak dauzka: Istilu, sailek, grafitilariak Istilu Banaketa da guzti hori banatzen duena".



Modan eguneratuta egoteko aukera eskaintzen du Istiluk eta Euskal Zapi modernoa da daukaten produktu izarra. Beraien webgunean aurkituko duzu gehiago.



lots@gabe

Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARREnera. Animatu!

@ Zaletasunak?

Erosketak, juerga eta mutilak.

@ Erokeria bat?

Goizeko 3etan gustuko mutilari etxera deitxu neska batekin hasi dala egixa dan galdetzeko... bere amak hartu zian telefonua!!!

@ Piropo bat?

¡que no me entere yo que ese culo pasa hambre!

@ Mutil bat ikustean nolakoa da zure erreakzioa?

Beregana joan eta ipurdia ikutu hasieran, ondoren barkamena eskatzen diot... bere erreakzioaren arabera trago batera gonbidatuko dut.

@ Txikitako gaiztakeria bat?

Balkoitik jendeari arrautzak botatzea

@ Kolore bat aukeratzekotan?

Beltza, muxu onenak iluntasunean ematen direlako! jaja!

@ Zer egingo zenuke zure bizitzako azken egunean?

Nire ametsetako mutilari nire sentimenduak adierazi.

@ Beldur bat?

Bakarrik geratzea.

@ Zer ez zenuke sekula egingo?

Goizeko 8etan jeiki mendira joateko.

@ Kolonia bat?

Verino Iker Casillaren azalean.

@ Zertaz zihoan idatzi zenuen eskuzko azkeneko eskutitza?

Mutil bati idatzi nion.. baina ez da inoiz bere eskuetara heldu.

@ Ezinezko maitasuna?

Karpin!

@ Ezagutzen duzun pertsonarik itsusiena?

La duquesa de Alba.

@ Noiz egin zenuen negar azkenekoz?

Orain dela 3 aste, nire mutila zenarekin haserretu nintzenean.

@ Une hunkigarriren bat?

Aste hontan, goizean esnatu eta dena zuri ikusi dudanean!

@ Hamaika aldiz izorratu arren beti barkatzeko prest zauden norbait ba al da?

Bai, ama.



<http://saioagonzalez@com> / 16 urte

i gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa
Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

Handia izandakoan...

biologoa

izan nahi dut



AMAIA ARMENDARIZ

Bata txuria jarrita eta Petri plakekin lanean arituko da ziurrenik Amaia Armendariz Iraegi urte batzuren buruan. Biologiako 2.kurtsoa egiten ari da Leioan eta astean zehar bertan geratzen da ikasle pisu batean. Badirudi gustura dabilela irribarrea aurpegitik kendu gabe baitabil egun guztia!

Zergatik aukeratu zenuen Biologia?

Beti gustau izan jata, naturan ikusten ditzuzun gauzen zergatia argitzen dualako Biologiak.

Karrera aukeratzeko orduan esaten dute beti Biologia irtenbide gutxiko karrera dela, egia al da?

Hori boladen arabera da, informatikuekin gertatzen dan berdina da, askotan pila bat bihar dia eta beste batzutan ez. Biologia jende askok ikasten du eta gertatzen dana da gobernuak ez ditzula proiektu gehixegi aurrera eramaten koste handixa dakatelako, horregatik laborategixetan leku oso gutxi dau eta klaseak ematen bukatzen dabe Biologia ikasitako askok.

Karrera bukatu baino lehen, laborategietan lan egiteko aukera dago, ezta?

Bai, unibertsitateko irakasleek bere proiektu propioak izaten dituzte kla-

seak emateaz aparte. Askotan ikasleak hartzen dituzte proiektu hoietan lan itxeko, eta horrela laborategi batek nola funtzionatzen daban ikusten dezu. Lan honek ez du notarako balio, hau da, Biologian klase teoriko eta praktikuak daoz laborategian, baina laborategiko lan hau aparte dixte, esperientzia moduan baloratzen da curriculum-ian.

Zenbat urteko karrera da?

5 urtetakua. Lehenengo bi urtietan irakasgai orokorrak daude, fisika, matematika... biologiak arlo mordu hartzen ditxu eta kontzeptu orokorrak finkatzeko izaten da. 3.urtetik aurrera aukerazko irakasgaien bitartez benetan ikasi nahi dezunan espezializatzen hasten zera, poliki-poliki dauden bideetatik batzutan gehixo sakontzen dezu, beti ere biologia orokorraren oinarriko kontzeptuak barneratuta.

Karrera zaila al da?

Ez da kontzeptualki zaila, baina asko ikasi bihar da eta gauzak egunera eraman bihar dia irakasgai guztiak erlacionauta daudelako.

Eta Bilbon ikasteari buruz, zer esan dezakezu?

Bizitza ona! Hiri handixa, aukera berriak... Bakarrik bizitziak alde onak ditxu, gauzak zure moduan itxeko askatasuna dakazu, esperientzia berrixa da, gainera klasietan ikasten ez dian gauza asko ikasten dia bakarrik bizitzen, baina baditxu gauza txarrak ere. Hala ere, ni oso gustora nau!

BIOLOGIA

ZENBAT URTE?

5 urteko karrera

NON IKASI DAITEKE?

Euskaraz eta ere deraz Leioan, bestela pribatueta.

IKASGAIK

Matematika, kimika, zoologia, botanika, geografika fisikoa, zitologia eta histologia, biomolekulak, bioestadistika, antropologia, genetika...

maitasuna laztana
pornografia ORGASMOA
penetrazioa sexualita-
masturbazioa



Eli Moreno
SEXOLOGOA

BILUZIK SEXOLOGIA ZERBITZUA, ETA ZER?

Neskak masturbatzen dira? Ligatzen ahalegintzen banaiz eta ezetz esaten badit? Asko masturbatzea txarra da? Nola jartzen da kondoi bat? Nola jakingo dut noiz nagoen prest txorta jotzeko? Asko maite dut, orduan zergatik ematen dit mina...Batera heldu gaitzeko orgasmora? Neskentzako garrantzitsua al da zakilaren tamaina? Kondoa apurtzen baldin bazait, zer? Nere sexu berdineko pertsonak gustatzen bazaikit, zer? Noiz hartu behar da hurrengo eguneko pilula? Halako galderak egiten dizkidatenean ez dakit nola erantzun... Nora joan behar da hartzera? Zein antisorgailu da ziurrena? Ez dakit ziur haurdun nagoen, zer egin behar dut? Mutila nere gainean korritzen bada haurdun geratu naiteke? Morreatzen banaiz HIES-a transmititu diezadakete? Nola landu dezaket gai hau gelan? Sexualitateari buruzko lan bat egin behar dut, nondik hasiko naiz? Lesbiana naizela uste dut, esango dut? Neskak korritzen dira? Lehenengo aldi min ematen du? Ez dut ezer sentitzen! Halako galderak edo gogoetak badi-tuzu eta norbaitekin konpartitu nahi badituzu, etorri Biluzik Sexologia Zerbitzura. Bakarrik, lagunekin edo bikotearekin, aukera guztiak onartzen dira.

Biluzik Sexologia Zerbitzua (Astelehena 17:00-20:00)

Gazte Informazio Gunea. Kultur Etxea.
Bigarren solairuan. Tel. 943 74 14 61.

SEXUALITATEA
konplejurik gabe

kontzertuak

MARTXOA

4 eguena

BILBO

22:00 Kuraia eta Zein

Kafe Antzokian

5 barixakua

BILBO

22:00 Wilko Johnson eta Benjamin Tehoval

Kafe Antzokian

6 zapatua

BERGARA

21:00 Parabellum, Boikot, Comando 9mm, 37 Hostias eta Segismundo Toxicomano

Jam aretoan.

7 domekia

BERGARA

20:00 UFO eta Uli Jon Roth

Jam aretoan.

11 eguena

DONOSTIA

20:00 Kiko Veneno

Gazteszena

12 barixakua

BILBO

22:00 Sexy Sadie

Kafe Antzokian

ONDARROA

22:30 Kerobia eta Keike

Kafe Antzokian

13 zapatua

BILBO

22:00 Amparanoia

Kafe Antzokia

18 eguena

BILBO

22:00 Asier Serrano

Kafe Antzokia

ERRENTERIA

22:30 Los Secretos

Leidor aretoa

20 zapatua

OÑATI

17:00 PUNK Festivala

Gazteleku

26 barixakua

BILBO

22:00 Ilegales

Kafe Antzokia

ONDARROA

22:00 Atom Rhumba eta Audience

Kafe Antzokian

BEKAK

"Juan Zelaia Letamendi" musika-beka

Eresbil elkarteak aldi berean euskara eta musika zabaltzen dituzten proiektuak bultzatzeko beka antolatu du, interesa duen edozein pertsonari zuzenduta. Beka hau banakakoek nahiz taldeek eska dezakete musikaren esparru desberdinei buruzko proiektuak aurkeztuz. Bekaren iraupena urtebetekoa izango da eta zenbatekoa 6.000 euro. Epea: apirilak 15

Landa-garapenerako agenteen prestakuntza

Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak landa-garapenerako agenteen prestakuntzarako 2004ko bekak prestatu ditu. 2004. urtean gutxienez 200 ikastorduko iraupena duen landa-garapenerako agenteen prestakuntzarako ikastaro bat amaituko duten pertsonak eska ditzakete eta ondorengoak ordaintzeko dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte: matrikula-gastuak eta ikastarora joateko gastuak (joan-etorriak, ostatua eta etxetik kanporako mantenua). Epea: apirilak 4

LEHIAKETAK

Argazkiak

Amurrioko Argazki Elkarteak XXVI. "Amurrioko Hiribildua" Argazki Lehiaketa antolatu du. Bertan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan bizi diren argazkilariek har dezakete parte. Aurkeztutako argazkien gaia eta neurria libreak izango dira. Bi modalitate: argazki analogikoak eta digitalak, zuri-beltzean edo koloretan. Lehiakide bakoitzak lau lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez. 1.000 euro saritan. Epea: apirilak 2

Sexismoaren kontrako kontakizunak

Santurtzioko Udalak "Sexismoaren aurkako kontakizunen V. lehiaketa" antolatu du, 18 urtetik gorako pertsonari zuzenduta. Aurkeztutako kontakizunak gizon eta emakumeen aukera berdintasuna izan behar dute oinarritzat. Idazkiek 4tik 20 folio bitarteko luzera izan dezakete eta idazle bakoitzak nahi beste kontakizun aurkeztu ahal izango ditu. Bi modalitate: euskara eta gaztelania. 900 euroko lehen saria eta 300 euroko akzesita. Epea: apirilak 13

LANA

Goi-mailako Teknikaria Zarautzen

Zarauzko Udalean goi-mailako Teknikari bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: goi-mailako ingeniari titulua eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: martxoak 22

Prebentzioko Teknikaria Bergaran

Bergarako Udalean Prebentzioko erdi-mailako Teknikari bat aldi baterako kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: unibertsitateko erdi-mailako titulu bat edo baliokidea izatea eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: martxoak 15



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 5 Bidasolo
- 6 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 7 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 8 Fernandez
- 9 Yudego
- 10 Zabaleta
- 11 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 12 Ibañez

GAUEZ

- Bidasolo
- Etxeberria
- Etxeberria
- Fernandez
- Yudego
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez

FARMAZIAK

- ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
- OKINDEGIA**
7 igandea Eizagirre

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO

Egunero
Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero
Bilbo 06:00 7:00... 20:00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00 8:10
9:25 9:35
11:10 11:40
11:20 11:50
12:10 12:40
12:20 12:30
13:10 13:20
13:20 13:30
18:20 18:30
19:10 19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10 8:20
9:55 10:05
11:10 11:20
11:40 11:50
12:10 12:20
12:40 12:50
13:10 13:20
18:10 18:20
19:00 19:10

OSASUNA

Anbulatorioa943 03 26 10
Planning-a.....943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak.....943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia).....943 46 46 22
Gurutze Gorria.....943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea.....943 03 28 00
Odol Emaileak.....943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....943 74 04 42
PESA (Eibar).....902 10 12 10
Taxi geltokia.....943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua.....943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua.....943 74 44 15
Kultura Zerbitzua.....943 74 21 58
Mendaroko Udala.....943 75 61 00
Ongizate zerbitzua.....943 74 10 08
Udaletxea.....943 74 10 50
Udaltzaingoa.....943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra.....943 74 16 26
Kiroldegia.....943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa.....943 74 30 88
Liburutegia.....943 74 35 25
Musika Eskola.....943 74 21 45
Mintxeta.....943 74 43 15
Parrokia.....943 74 08 42
Postetxea.....943 74 15 47
Gaztetxea.....943 74 35 72
Gazte Informazioa.....943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza.....943 74 02 96
Zaharren Biltokia.....943 74 05 26
Eguneke Zentroa.....943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola.....943 74 21 41
HHI (EPA).....943 74 08 80
Herri Eskola.....943 74 08 79
I.M.H.....943 74 41 32
Institutua

Arreiturre.....943 74 80 19
Ezenarro (Meka).....943 74 80 19
Ikastola.....943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.....943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....943 74 41 12
El Diario Vasco.....943 74 40 73
El Correo Español.....943 74 10 82
Zazpiki irratia.....943 74 34 74
Egunkaria.....943 30 02 28
Gara.....943 31 69 99

Hirugarren Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa martxoaren 6an eta 7an izango da Herriko Antzokian

Elgoibarko sei neska ari dira Soinu Zahar Txapelketan parte hartzen

Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta eta Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarraren, Haritz E.D.T eta Udalaren babesarekin ospatuko da asteburu honetan (martxoak 6 eta 7) Elgoibarko III. Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa. Martxoaren 6an, zapatuan, 16:30etik aurrera A saileko neska-mutilek hartuko dute parte (7-11 urte). Mutilek Abarketak eta Agurra dantzatuko dituzte eta Txakolin Soinu Zaharra eta Agurra neskek. Martxoaren 7an, domekan, B sailekoen (11-15 urte) txanda izango da 10:30etik aurrera. Mutilek Abarketak eta Desafioa dantzatuko dituzte eta neskek, berriz, Ehun Dukat Soinu Zaharra eta Uztai Txiki Zortzikoa.

Mutilek Aurreku Txapelketak izaten dituzten bezala, neskek Soinu Zahar Txapelketak dituzte. Elgoibarko sei neska ari dira txapelketa honetan parte hartzen.



Iaz parte hartu zuten dantzari elgoibartar batzuk.

A sailean (7-11 urte): Ainhoa Agirre, Amaia Astigarraga eta Maria Ferreiro eta B sailean (11-15 urte): Dorleta Fernandez, Maitane Moreda eta Miren Ramos. Aurtengoan, Urretxun eta Oiartzunen dantzatu dute oraingoz. Urretxuko lehen

jardunaldian izan ziren emaitzen berri eman genuen BARRENen, Oiartzungoak hauek izan ziren: A sailean 17 neskek parte hartu zuten, Maria Ferreirok 6. postua eta Amaia Astigarragak 14. postua lortuz. B sailean 18 neska izan ziren eta Dorleta Fernandezek 4. postua eta Miren Ramosek 10. postua lortu zuten.

Elgoibarkoa hirugarren jardunaldia izango da eta Herriko Antzokian izango da dantzari bikain hauek egiten ari diren lana eta trebezia ikusteko aukera. Antolatzaileek ahalik eta jende gehien hurbildu eta Herriko Antzokia betetzeko deialdia egiteko eskatu digute, dantzariak txalo eta

animuak eskertuko baitituzte. Elgoibarko txapelketaren ostean, Beasaingo eta Lezoko txapelketetan hartuko dute parte eta puntu gehien eskuratzen dituztenak maiatzean Legazpin jokatu den finalean izango dira.

"Eraso" zaraularren eta "Spezial Guest" urretxuarren kontzertua gaur 22:30ean Gaztetxean



Spezial Guest taldea Festimaden izan zen.

"Berri Txarrak" talde nafarraren kontzertuarekin ikusle kopuru errekorra (1.000 ikusle pasatxo) hautsi ostean, Gipuzkoa mailan dauden bi talderik indartsuenen kontzertua antolatzea lortu du Gazte Asanbladak. Gaur, hilak 5, Gaztetxean (22:30ean) izango da emanaldia. Sarreran lau euro ordaindu beharko dira.

Batetik, "Eraso" Euskal Herriko rock eta metal musika eskenan itzal handiko talde zaraularra igoko da taula gainera eta bestetik, metal pop-a egiten duen Urretxu eta Zumarragako "Spezial

Guest" taldea, zuzeneko ekitaldi potenteengatik ezaguna. "Eraso"k "Grisez bustitako egunak" estudioko hirugarren diskoko abestiak eskainiko ditu kontzertuan. Adituen iritziz taldearen diskorik "rockeroena" da, baina finean, rock, metal eta trash doinu ezberdinak eta zuzeneko indartsua uztartzen ditu Zarautzeko laukoteak. Mikel Kazalisen (Estigia, Anestesia, Negu Gorriak, 2Kate, Kuraia) gidaritzapean grabatutako lana da eta iazko irailean argitaratu zuen Metak diskoetxeak.

1.500 lagunek erabiltzen dituzte Olaizaga eta Mintxeta Kirol Guneko instalazioak egunero

Asteazkena da gehien erabiltzen den eguna

Udal Kirol Patronatuak jakinarazi dituen datuen arabera, elgoibartarren %15ak erabiltzen ditu Olaizaga Kiroldegiko eta Mintxeta Kirol Guneko instalazioak egunero, hau da, 1.500 pertsonak erabiltzen dute Udal Kirol Patronatuak eskainitako zerbitzuren bat edo beste egunero. Zifra esanguratsu hauek elgoibartarren kirolzaletasuna frogatzen dute beste behingoz.

Bestalde, asteazkena da Olaizaga kiroldegiko eta Mintxeta Kirol Guneko instalazioak gehien erabiltzen diren eguna. Igerilekua izaten da instalakuntzarik erabiliena Olaizaga kiroldegian. Asteazkenetan 377 erabiltzaile izaten ditu batez beste. Kiroldegiko gimnasiotik, berriz, 260 lagun pasatzen dira, ikastaroren bat edo beste egitera gehienak. Mintxetari dagokionez, muskulazio gela eta gimnasioa dira zerbitzurik erabiliarik,



230 erabiltzaile izaten baitituzte asteazkeneko batez beste. Mintxetan bigarren instalakuntzarik erabiliena futbol zelaia da, 90 lagunek jokatzen baitute futboleko bertan asteazkeneko.

ANTT Softlan eskubaloia taldeak Udaberri Txapelketako finalurrekoetarako sailkatzeko aukerak ditu

Udaberri Txapelketako emaitzak eta sailkapenak ikusi eta gero, Territorial mailako mutilen senior eskubaloia taldeak (ANTT-Softlan) txapelketako finalurrekoetarako sailkatzeko aukerak ditu azken jardunaldiaren faltan. Azken bi norgehiagokak irabazi ostean, aste honetan Elgoibarren jokatuko den partidua irabaziz gero, eta Groseko talde donostiarrak Ormaiztegiko taldea garaitzen badu, Aitor Doradok zuzendutako mutilek txapelketaren finalurrekoak jokatuzko txartela eskura dezakete. Igande honetan Olaizaga kiroldegian jokatuko den partidua gogorra izango da.

Aurkaria Urola Agip taldea izango da. Talde honek elgoibartarrena baino maila bat gorago jokatzen du eta liga txapelketan lehen postuan



amaitu dute. Dena dela, elgoibartarrak sasoi puntu oso onean iritsi dira Udaberri Txapelketara eta urolatarrek izerdi franko bota beharko dute Elgoibartik probetxuzko zerbait atera nahi badute. Urolako taldeak sailkatzeko aukerak ditu oraindik eta garesti salduko dute porrota. Eskubaloia partidua bikaina ikusteko aukera izango dugu beraz igande honetan Olaizaga kiroldegian.

EMAITZAK

Futbola

Amaiak Bat 0 Haundi 0 (Pref.)

Esku pilota

Udaberri Sarria

Lagunak A 22 Aæorga 9 (Kad.)

Txapagain 22 Lagunak 14 (Jub.)

Eskubaloia

Elorrio 17 Cometel Elg. 17 (Jub. nes.)

Arrasate 19 ANTT Softlan 20 (Senior mut.)

Idarraga kafeak 7. saria

HAUNDIKO jokalarri erregularrena 03/04

JOKALARIA PUNTUAK

1- M. Gonzalez	34
2- M. Tarragual	30
3- Arenas	30
4- Arrasate	29
5- Javi Gomez	26
6- Guinea	25
7- M. Gonzalez	21
8- Elgoro	21
9- Navarrete	20
10- D. Rodriguez	19
11- Igartua	19
12- Izagirre	13
13- Leo	10
14- Martija	6
15- Jakes	6

AGENDA

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapata, 6

18:00 Cometel Elgoibar Aloæa Mendi (Jub.nesk.)

Domekia, 7

12:00 ANTT Softlan Urola (Sen. mut.)

Esku Pilota, Ikastolan

Barixakua, 5

22:00 Lagunak Lazkao (Jub.)

22.45 Lagunak B Tartaloetxe (Kad.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapata, 6

16:00 Magefesa Virgen de Vico (Nazional B)

Futbola, Mintxetan

Zapata, 6

12:30 Elgoibar Urki (Neskek F-8)

15:30 Elgoibar Orioko (1. erreg.)

17:30 Elgoibar Dunboa (Jub.)

Domekia, 7

Alehin Lehiaketa

10:00 Elgoibar Lagun Onak

10:00 Eibar Aæoæa Mendi

11:15 Anaitasuna Bergara

11:15 Arrasate Aretxabaleta

12:30 Elgoibar Tolosa (Inf.)

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Lana

ESKAERA

- ◆ Emakumea adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **615 73 79 24**
- ◆ Esperientziadun neska adineko pertsonak zaintzeko prest. Goiz edo arratsalde. ☎ **660 91 94 23**
- ◆ Gizona igeltsero, peoi edo beste edozein lan egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **680 46 38 86**
- ◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest, orduka, fijo edo asteburuetan. ☎ **626 91 49 04**
- ◆ Emakumea garbiketaria lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01/ 652 71 59 08 (Araceli)**
- ◆ Neska eskaintzen da dependiente moduan lan egiteko. Komertzio ikasketak ditut. ☎ **943 20 02 95**
- ◆ Tabernan lan egingo nuke arratsaldetan. Euskaraz badakit. ☎ **699 18 32 99**
- ◆ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 30 56**
- ◆ Gizona arotz moduan edo obrako peoi bezala lan egiteko prest. ☎ **620 074 965 (Luis)**

ESKAITZA

- ◆ Umeak zaintzeko pertsona behar da. ☎ **627 96 58 45**
- ◆ 40 urtetik gorako emakumea behar da ume bat eskolara eraman eta ekartzeko. ☎ **943 53 16 16 (18:00etatik aurrera)**
- ◆ Kamareroa behar da Mendaroko Ormola tabernarako. Arratsaldean edo asteburuetan. ☎ **653 74 69 91**

Partikularrak

- ◆ Ingeles Filologian Lizentziatuak partikularrak ematen ditu. Maila guztiak, goiz eta arratsalde. 10 urteko esperientzia. ☎ **943 74 31 67**
- ◆ Enpresa eta Administrazio Lizentziaturako 4. mailako ikaslea, klase partikularrak emateko prest. Goiz edo arratsalde. ☎ **605 77 07 80**
- ◆ Josteko klaseak hartuko nituzke. ☎ **616 76 66 73**

Bestelakoak

- ◆ Txabola nahiko handia alokatzen da. ☎ **699 18 32 99/943 74 17 87**
- ◆ Hilaren 16an gizon batek kartera galdu zuen Harzubi taberna eta Sigma auzoa bitartean. Aurkitu duenak Udaltzaingora eraman dezala, mesedez.

Salerosketak

- ◆ Golf GT TDI, 110 zaldiko autoa salgai. 97 bukaerakoa. Egoera onean, beti garajejan egon da. 9.000 euro. ☎ **652 76 28 59**
- ◆ Snow-ko botak salgai. 42,5 taila. Mereak eta berriak. ☎ **620 74 21 11**
- ◆ Kerosenoko estufa salgai. estrenatu gabe. ☎ **943 53 16 72**
- ◆ Hezetasuna kentzeko aparailua salgai. Prezio interesgarria. ☎ **943 53 16 72**
- ◆ Ford Orion autoa salgai. 1800, 16v. 41.000 km. ☎ **943 53 16 72**
- ◆ 1997ko furgoneta salgai. Kanpingerako egokitua. Taldoa, ohea, mahaia, berogailua, alarma. 102.000km. Egoera onean. 6.600 euro. ☎ **669 02 63 55**
- ◆ Autorako CD-irratia erosiko nuke, ahal bada Kenwood markakoa. ☎ **639 07 45 42 (Ana)**
- ◆ Panasonic SVH5 bideo kamara salgai. 3 bateria, osagarriak eta bi poltsa. 180 euro. ☎ **606 95 48 32**
- ◆ Fiat Tipo autoa salgai. Egoera onean. 800 euro. ☎ **943 74 84 69**

Lokalak

- ◆ 173m²ko lokala salgai Santa Klaran. Sukaldedun txokoarekin. 4 metroko altuera du eta erabilpen asko izan ditzake. ☎ **680 112 938**

Etxebizitzak

- ◆ Pisua salgai erdigunean. 3 logela. Berritua. Altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- ◆ Pisua alokatzen da herriko erdigunean. ☎ **943 20 30 83**
- ◆ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **943 74 34 14 (Lorea)**
- ◆ Pisua salgai Santa Ana kalean. Berritua, altzariekin. ☎ **625 70 94 44/ 625 70 94 45)**
- ◆ Elgoibarren pisua osatzeko jendea behar da. ☎ **610 45 85 52 (Nerea)**
- ◆ Pisu txikia, hutsik badago hobe, hartuko nuke alokairuan denboraldi luze baterako Elgoibar edo Mendaron. ☎ **656 72 36 50**
- ◆ Pisua salgai Mendaron. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun, garajea eta trasteroa. ☎ **665 81 75 84**
- ◆ Apartamentua alokatzen da Saloun. Hondartzako lehenengo ilaran. Novelty eraikuntza. Guztiz ekipatua, aire egokitua eta garajearekin. ☎ **943 81 42 38**
- ◆ Conilen (Cadiz) apartamentua alokatzen da. Eraikuntza berria. Konpletua. Los Bateles hondartzara ondoan. ☎ **680 44 26 68**
- ◆ Pisua salgai Santa Klaran. Altzariekin. ☎ **610 68 41 64**
- ◆ Pisua salgai Santa Klaran. 3 logela, egongela, sukaldea, bainua, eguzkitsua. Dena kanpora begira. Igogailuarekin. ☎ **943 53 17 43**
- ◆ Etxea salgai Arregitorren. 97m². Berritua. ☎ **679 83 04 38/943 74 35 89**
- ◆ Santa Ana kalean pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, bi balkoi, berogailua, ganbara. Eguzkitsua. ☎ **661 23 77 11**

Agurrak



♦ Zorionak **artista bimista** bost urte handi bete dituzulako. Ondo ondo pasa zure eguna eta muxu potolo bat danon partez.



♦ Zorionak **Aner**, martxoaren 8an, 7 urte beteko dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, arrebak Laidaren partez.



♦ Zorionak **Mireia**, gaur, 13 urte bete dituzulako. Ondo pasa eguna eskolako lagunekin eskiatzen. Muxu handi bat gurasoen partez.



♦ Zorionak **Iker**, gaur, hilak 5, 6 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiako-en, eta bereziki, Andoniren partez.



♦ Zer pentsatzen zenuen, zutaz ahaztu egingo ginela? Orain dela 6 urte eguzkia izan zen, baina duela 12 urte, zure jaiotza egunean, ilargia txuriz jantzi zen. Zorionak **Natalia**, etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Andoni**, bihar, martxoak 6, 8 urte beteko dituzulako. Arrebak Maria eta familiako guztien partez, belarri tirakada handi bat!



♦ Zorionak **Josune**, atzo, hilak 4, 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat gurasoen, familiako-en eta bereziki, anaia Josebaren partez.



♦ Zorionak **Carlos!** Lorea, Unai eta amatxoren partez.



♦ Kaixo **bikote!** ba al dakazue indarririk bi kan-dela emendatzeko? muxu handi bat eta zorionak ikastolako laguntxoaren partez



♦ Zorionak **Eider Rodriguez**, hilaren 24an, 9 urte bete zenituelako. Anaia Ion eta gurasoen partez.



♦ Zorionak **Coco**, gaur, hilak 5, 6 urte bete dituzulako. Muxu handi bat gurasoen, aitona-amonen eta osaba-izeben partez.



♦ Zorionak **Liria Linei Martinez**, hilaren 28an, 15 urte bete zituelako. Osaba-izeba, lehengusu eta amaren partez.



♦ Zorionak **Alazne** eta **Joneri**, hilaren 3an, 11 urte bete zituztelako. Familiako guztien partez.

5 BARIXAKUA

18:30 ODOL ATERALDIAK

Anbulatorioan

22:00 BIDEO-FORUM-A

Filmea: "Solo mia"

Hizlaria: Eskarne Larrinaga

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

6 ZAPATUA

11:00 "ANTZERKI TXOKOA"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Atxutxiamai Aisialdi

Taldea

LH 1-2-3-4

Doan

12:30 HITZALDIA

Hizlaria: Ezker Abertzaleko militante bat

Gaiak: Martxoaren 14ko hauteskundeak, autodeterminazio eskaria, Espainiar

Estatuaren totalitarismoa.

Plaza Handian

Antolatzailea: Ezker Abertzalea

16:30 POTELO LATZA HERRIAN ZEHAR

Ermuko "Arreta" irrati askearen alde

Antolatzailea: Gazte Asanblada

22:00 KONTZERTUAK

Ermuko "Arreta" irrati askearen alde

Taldeak: "Lindanne", "Ostiada OI",

"Luchando para cambiar" eta

"Abhagoth"

Gaztetxean

11 EGUENA

19:30 HITZALDIA

Gaia: "Nola maitatu?"

Hizlaria: Maria Jose Vicente

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

12 BARIXAKUA

19:00 OLEO ETA AKRILIKOEN

ERAKUSKETA

Egilea: Emilia Nogales

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Martxoaren 28ra arte

19:30 BEREZIARTUA MUSIKA

ESKOLAKO TALDE

INSTRUMENTALEN KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan



22:15 ANTZERKIA

Antzezlan: "Menu del dia"

Taldea: Mujercitas konpainia

Herriko Antzokian

OSPAKIZUNAK

Gaztetxearen agur jaialdia

Gaztetxea aurki desagertuko denez, agur jaialdia antolatzen ari dira Gazte Asanbladakoak. Martxoaren 13an, zapatuan izango da. Bertan bazkari herrikoiaz gain "Elektrotuna" taldearekin batera kalejira egingo da herrian zehar. Ahalik eta jende gehien bildu nahi dute agur jaialdian eta gonbidapen zabala egiten diete Elgoibarko herritarrei, "bai gazteei eta baita ez hain gazteei ere. Gaztetxe hau lortzen lagundu zuten herritarrei, kolektiboei. Gaztetxean lanean jardun diren guztiei, Gaztetxeko ekintzak antolatzen lagundu dutenei eta hauek parte hartu eta disfrutatu duen orori". Bazkarirako txartelak Gaztetxean lortu ahal izango dira. Langileek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta langabetu eta ikasleek 5 euro. Gauean oraindik zehazteko dagoen kontzertua izango da.



"Soñadores"

Zuzendaria: Bernardo Bertolucci.

Antzezleak: Michael Pitt, Louis Garrel, Eva Green.

68ko udaberrian Frantziar girotutako filma. Askatasun grina, ametsak eta giro politiko nahasia ziren nagusi, eta gazteen ahotsa inoiz baino ozenago entzuten zen Europa guztian. Bien bitartean hiru gaztek euren buruak frogatu nahi dituzte, noraino iristeko gai diren jakiteko. Isabelle eta bere anaia Theo bakarrik geratu dira Parisen, gurasoak oporretan joan baitira. Matthew, ikasle estatubatuarra gonbidatuko dute etxera. Edozer egiteko askatasuna ardatz hartuta sexualitatearekin eta emozioekin jolasean hasiko dira.

KULTUR EKINTZAK

“Antzerki txokoa”

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, “Antzerki txokoa” hurrei zuzenduriko kultur ekintza izango da zapatu honetan, martxoaren 6an, Kultur Etxean. Taupada Antzerki Taldeko kideak izango dira antzerkiaren mundua gatzetxoengana hurbiltzeko ardura izango dutenak. Besteak beste, “animazio jolasak” egiteko aukera izango dute parte hartzaileek; mugimendua, sormena eta irudimena landuz. Goizeko 11:00etan hasiko da LH 1-2-3 eta 4. mailako zuzendutako saioa. Doan izango da.

ANTZERKIA

“Menu del dia”

Mujercitas Konpainiaren eskutik, “Menu del dia” antzezlan ikusteko aukera izango dugu elgoibartarrok martxoaren 12an, barixakuan, Herriko Antzokian. Sarrerak jadanik salgai daude eta Kultur Etxean eskura daitezke, goizez, 8 euroren trukean. Argumentuari dagokionez, ohiko auzo jatetxe batean girotutako kontakizuna aurkezten digu Mujercitas Konpainiak. Pepa eta Chelok eguneroko menuak prestatuz egiten dute lan bertan. Hauen ilusio, frustazio, desio eta minak lapiko, zartagin eta koipe artean ezagutuko ditugu. Bizitzak legez, osagai gazi-gozoak, garratzak eta mingotsak ditu eguneko menu honek. Gaueko 22:15ean hasiko da saioa.

IKASTAROAK

KZgunea

KZguneak hainbat ikastaro prestatu ditu martxoan ere. Internet KZgunean esaterako, ordenagailuaren funtzionamenduaren gaineko oinarriak, interneten nabigatzen, posta elektronikoa, informazioa bilatzen eta abar irakatsiko dira 20 orduko iraupena izango duen ikastaroan. Martxoaren 8tik 20ra bitartean izango da (16:00etatik-18:00etara edo 18:00etatik-20:00etara). Honez gain, martxoaren 29tik apirilaren 2ra bitartean Nagusiweb ikastaroa izango da 50 urtetik gorakoei zuzenduta. KZguneak 16:00etatik 20:00etara irekitzen ditu ateak eta 16 urtetik gora eduki behar dira bertan sartu ahal izateko. Informazio gehiago edo ikastaroetan izena emateko telefonoa: 943 74 88 28.

JAIALDIAK

“Arreta” irratia alde

Zapatu honetan, hilaren 6an, Ermuan sortu berri den “Arreta” Irrati askeko jendea izango da Elgoibarko Gatzetxean. Irratia aurrera ateratzeko dirua behar dutenez, ekitaldi ezberdinak antolatzen ari dira han eta hemen. Elgoibarren bazkari herrikoiarekin hasiko dira ekintzak eguerdiko 14:00etan Gatzetxean. Bazkaria doanekoa izango da. 16:30ean poteoa egingo da herriko kaleetan zehar. Azkenik 22:00etan kontzertuen txanda izango da. “Lindanne” (Ermua), “Ostiada01” (Elgeta), “Luchando para cambiar” (Ermua) eta “Abhaogoth” (Ermua) izango dira makro kontzertuan parte hartuko duten taldeak.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

“Las chicas del calendario”

- 5, barixakua: 22:15
- 6, zapatua: 19:30-22:15
- 7, domekia: 19:30-22:15
- 8, astelehena: 22:15

“La bahia magica”

- 7, domekia: 16:30

“Soñadores” (Z.K.)

- 11, osteguna: 22:15

EIBAR, Unzaga

“Doce en casa”

- 5, barixakua: 19:30-22:15
- 6, zapatua: 17:00-19:30-22:30
- 7, domekia: 17:00-19:30-22:30
- 8, astelehena: 19:30-22:15
- 9, martitzena: 19:30-22:15
- 10, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

“Casa de arena y niebla”

- 5, barixakua: 19:30-22:15
- 6, zapatua: 17:00-19:30-22:15
- 7, domekia: 17:00-19:30-22:15
- 8, astelehena: 19:30-22:15
- 9, martitzena: 19:30
- 10, eguaztena: 19:30

BARRENek ez du gerta litekeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.



“Las chicas del calendario”

Zuzendaria: Nigel Cole.

Antzezleak: Helen Mirren, Julie Walters, Linda Bassett.

Izaeraz oso ezberdinak izan arren lagunminak dira Chris eta Annie. Ingalaterrako herrixka batean bizi dira, baina zeramaten bizimodu lasaia errotik etengo da Annieren senarra leuzemiaz hiltzen denean. Chrisek herriko ospitalearen alde dirua lortzeko kanpaina abiaraziko du lagunuen laguntzaz. Dirua biltzeko egutegi bat kaleratzea otuko zaio. Bertan agertzen diren emakumeak eguneroko bizimoduan egiten dituzten gauzak egiten agertuko dira. Ideiak



A

ste honetako erretratu zaharra **Jesus Mari Corok** laga digu. 1950. urte ingurukoa dugu argazkia, eta Aneto mendi gailurrean aterata dago. Morkaiko Mendizale Elkartek antolatuta, astebete pasatu zuten Pirinio Zentralean, eta bertako 3 edo 4 mendi altuenak igo zituzten. Aneto, 3.304 metroko altuerarekin, Pirinio Zentraleko mendirik altuena da. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri zaizkigun mendizaleak.

Goian zutik, ezkerretik eskumara: **Julio Uria, San Martín** eta **Juan Mari Etxeberria** (†).

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Luis Mari Uria, bergararra, bergararra, Pedro Arriola** (†), **Juan San Martín** (Arartekoa izandakoa) eta **Pako Iriondo** (Morkaiko Mendizale Elkarteko presidente ohia eta Euskal Mendizale Federakuntzako ohorezko presidentea).

Hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Guillermo Garmendia** (†) (Morkaikoko presidente ohia), **Pako Igartua, Jesus Larrañaga** eta **Jesus Mari Coro**.



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



URKIDI AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE
LAN
FISKAL**

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



Martxoak, 12
Ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian

Pepak eta Chelok

*eguneko menuak prestatzen
lan egiten dute.*

*Beren poz, nahi eta minak
zartagin artean azaleratzen dira.*

*Beraien etorkizuna, berriz,
telebistako zozketa baten
ondorioz aldatuko da.*

*Osagai gozo, gazi, garratz
eta mingotsek osatzen dute
eguneko menu bikain hau.*

ANTZERKIA

menú del día

de Marilia Samper



con

Paloma Tabasco

Beatriz Santiago



JIM ATXOR UHARTEAN

Martxoak, 28 (igandea)

16:30ean

Herriko Antzokian

(Euskaraz)



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA





II. Edizioa

IMH SARIAK



- Ikasle ohi aipagarria
- 2003-04ko ikaslea
- Fabrikazio Arloko ikaslea, 2003-04 ikasturtea



Sariak banatzeko ekitaldia

Data: 2004ko martxoaren 30a

Ordua: 12:30etik 13:30era

Lekua: IMHko areto nagusia

Makina Erremintaren Institutua

Azkie Auzoa, 1

20870 ELGOIBAR

Tel. 943 74 82 65 - 74 41 32

Faxa 943 74 41 53

imh@imh.es

www.imh.es

Babesleak:



INTZA-WOERNER

